



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

MAHASTIZAINZAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA, 2017KO EKAINAREN 30A

Temperatura altuak eta ekaitzak izan dira ekainaren azken egunetan, Arabako Errioxan. Ekaitzen ondorioz izandako prezipitazioek 10 eta 20 litro ur ekarri dute mahastientzat, eta ur hori ondo hartu dute oro har, nahiz eta zenbait ondorio eragin ahal izan duten apirilaren 28ko izoztearen ondoren sortutako kimuen bigarren belaunaldiko mahats mordoak mamitzean. Ohi denez ekaitzetan, prezipitazioak irregularrak izan dira: Mañuetan, esaterako, 40 litro ur utzi dute, baina Lapueblan euri gutxi erori da.

Ekainaren 27an, asteartea, izandako ekaitzak txingorra ekarri zuen Arabako Errioxako erdialdera. Besteak beste, Guardia, Eskuernaga, Navaridas, Iekora eta Moreda Arabako mahastiek kalte arinak izan zituzten. Haizeak ere kalteren bat eragin du oro har, baina bortitzagoa izozteek jotako eta denbora gutxian garatu eta mahatsondoarekiko lotura ahulagoa zeukaten kimu guriez hornitutako mahastietan.

Mahastien egoera orain oso irregularra da, apirileko izozteak kaltetu zituen ala ez. “Mahats mordoan itxitura” (L egoera) egoeran dauden mahastiak daude, 15-20 eguneko aurrerapenarekin garapen normala kontuan hartuz, eta badira beste batzuk izoztearen ondoren kimatu eta oraindik mamitzen ari direnak (J). Espero dugu, denborak aurrera egin ahala, fenologia berdindu dadila.

Mahastiak osasuntsu daude. Badira gorri orban batzuk, baina momentuz ondo kontrolatuta daude sarkorrekin eta sistemikoekin. Oidioari dagokionez, azken egunetako tenperatura hotzen eta datozen egunetako iragarpenen ondorioz, gaixotasun hori errazago sor daiteke; beraz, oso adi egon beharko gara eta ezin dugu arreta galdu tratamenduetan, baita izozteen ondorioz mahatsik emango ez duten mahastietan ere, egon daitezkeen kalteak saihesteko.

Izozteak kaltetutako mahastietan, non ernatze ugari eta kimu pilatuak egon baitira, oso garrantzitsua da, batez ere gaixotasun kriptogamikoak izateko arriskua dagoen egoeretan, mahatsondoa aireztatzea. Horregatik, egoki da landaredia garbitzea, udaberriko kimatzean eta kimu berriak kimatzean bidez, horri esker produktuak eta airea sartuko baitira, betiere mahats mordoak erdi itzaletan edukita. Lan horri esker, ez da zertan egin hurrengo urteko inauste lana.

Era berean, adi egon beharko da mahats mordoaren sitsarekin, laster hasiko baita bigarren belaunaldiaren hegaldia, eta zenbait lurzatitan nahitaez eman beharko da tratamendua. Hemendik aurrerako meteorologia erabakigarria izango da populaziorako eta jarduteko beharrian eta jarraibideetarako.

Ekoizpenari dagokionez, mahats lagina ugaria da izozteak gehiegi kaltetu ez zituen zonetan, eta irregularra gainerako zonetan. Eskualdean baditugu mahasti batzuk gehiegi zamatuta daudenak, eta beste batzuetan, ordea, ez da mahatsik bilduko, mahats mordo bat edo beste baino ez daukatelako. Badira mahasti batzuk mahatsa emateko arazoez gain, besoak, eta are mahatsondo osoa, berritu beharko dutenak, ernatzea izan duten bezalakoa izan dutelako, udaberriko kimatzeak egitearen bidez behealdean, eta horrek eragina dauka inauste kostuak igotzean eta mahatsa beranduago ematean. Hala ere, beste mahasti batzuk, nahiz eta hasieran izozteak gogor jo izan, nahikoa ondo ernatu dira, eta batzuetan aukera dago berreskuratzeko ohiko ekoizpenaren zati bat. Hortaz, irregulartasuna da ezaugarri nagusia.

Egun, ikusita nola bilakatu diren mahastiak, esan daiteke berdin dirauela izozteak eragindako banaketa: ekialdean kalte gutxi dago, eta mendebaldean, berriz, kalte handiak. Mahatsa dagoen tokian, zaindu egingo da. Ia mahatsik ez dagoen tokian, dagoena zaindu beharko da eta mahastia osasun eta landaredia egoera onean eduki, begiak hurrengo kanpainan jarrita, eta ez hainbeste oraingoan.

MAHASTIZAINNTZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA